

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Arriaran Aranburu Arriaran II

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1926-2015)*

Aurkibidea



Biografia



Arrasateko Arano kalean jaio zen 1926an. Aita Eskoriatzako Mazmela auzoko Etxenausi baserrikoa eta ama arrasatearra zituen. Sei anai-arreba ziren. Aita iturgina zen eta amak etxeko denda ("Bittor hojalateruena") eramaten zuen. Bost-sei urterekin ikastolan hasi zen. Gerra denboran ez zuen eskolarik izan. Gerraostean San Viatorren jarraitu zuen hamasei urte izan zituen arte. Iturgin lana izan zuen ogibide bizi guztian. Azkoitiko Olaberri fondako Encarnacion Elorzarekin ezkondu zen eta bi seme izan zituzten. Pilotari profesinala izan zen. Atzelari moduan jokatzen zuen `Arriaran II.a´ izenarekin.

Zintak

ARR-084

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-07-09
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Ikastolan ikasi zuen gerra aurretik

- **Erref:** ARR-084/002
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:01:07. **Bukatu:** 00:04:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>EAJrena zen Gurea frontoi osteko ikastolan ikasi zuen. Errepublikara garaia zen, eta Abade-etxean ere bazegoen beste ikastola bat. Gerraostean San Viatorren apaizak etorri ziren eta haiekin ikasi zuen.</p>

Transkripzioa

-Ta zu zeu nora fan ziñan eskolara?

-Ni? Hara... Mondrauen euen e, batzokixe. Batzokixen atzien euen jardiñe

haundixe. Ta han ein zan, ein auen PNV-kuek frontoi bat.

-A, frontoia.

-Ta frontoien atzien e, esk... ikastolie. Eta frontoien errebotie izeten zan holako ate haundi bat zerretan zan, ta ha zan eskolie. Ta gero errekreuen ha zabaltzen zeuen ta handik jardiñera faten gitzen. Ta ha izen zan "Fronton Gurea". Gero ipini utsien. Baiña ha zan Batzokiko frontoie.

-Eta zueik egon ziñein eskolie be bai Batzokiko ikastolia zan, ezta?

-Ez, danerakuek, baiñe bai, Batzokixek ein auen ha frontoie. Baiñe ikastolie? Ikastolie danendako zan, e.

-Baiña PNV-kuek jarritakue zan hori ikastoliori?

-E?

-Hori pribaua zan edo publikua?

-Publikua, publikua. "Lo que pasa que" orduen ba Batzokixek ein auen ba frontoie ta eskolie be hantxe euen. Ta gero beste eskola bat euen abadetxien. Ikastolia ha be. Dana euskerakue zan orduen.

-Hori zan Republika garaixan, ezta?

-Republika garaixen.

-Oseake ikastola. Orduen zueik eskolak euskeraz jaso zittuein?

-Bai, bai, bai. Guk...

-Gerrara arte.

-Bai. Gure maixuek zien Hilarion, Urrutia, eta Etxebarria.

-Hilario Urrutia...

-Eta Juanito Etxebarria.

-Zer zien eurak, arrasatearrak?

-E? Arrasatearrak.

-Juanito Etxebarria... Zenbat urtekin hasi ziñan eskolan?

-Gu eskolan ba mutikotan. Betiko moruen.

-Bost-sei urtekin?

-Bost-xei urtekin edo. Karo.

-Oseake hori zan hogeita hamaika hogeita hamabi zer horretan, ezta?

-Bai, bai. Hogeta hamaika, hogeta hamabi, hogeta hamahiru, hor ibiliko zan.

-Eta hor egon ziñain gerrara arte? Eskola horretan?

-Bai, gerra denporara arte eta gero gerra denporan horreik desapareziru zien, ta etorri zien hona e Viatoristak. San Viator. Ta gero hantxe ibili giñen gu.

-Ta San Viatorren ia zien eskola nazionalak, ezta?

-Bueno, eskola nazionalak zien beste batzuk. Baiñe San Viatoristak etorri zien nazionalen epokan. Frankon epokan etorri zien. Bai.

-Eta zuek pasau ziñen orduen San Viatorrera?

-Bai, beste...

-Ha publikua zan edo pagau in biher zan?

-Eeee... publikue uste dot zala, e! Nik ez dakit /eztaitt/ pagetan gauen zerbait edo, baiñe ez dot /eztot/ uste, e!

2. Eskolatik iturgintzara

- **Erref:** ARR-084/003
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:04:09. **Bukatu:** 00:07:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

"Escuelas Nacionales" deiturikoak ere jarri zituzten gerraostean. Den-denetan neskek eta mutilek aparte ikasten zuten. Hamasei urtera arte ikasi zuen San Viator eskolan. Aita Eskoriatzako baserritar bat zen, eta ama arrasatearra. Aita iturgina zen, eta etxean zuen tailerra. Joxek aitaren ogibidean jarraitu zuen.

Transkripzioa

-Publikuek gero beste batzuk euzen, e! "Escuelas nacionales". Batzuk zien "escuelas nacionales", goiko Santa Barbaran euen bat, beste bat Calvo-na, beste bat... hiru eskola edo baeuzen e. Baiña hor mutillek eta neskek aparte egoten zien. Baiñe ni ibili nitzen San Viator, Viatoristas.

-Bai. Eta San Viatorren mutillak bakarrik, edo zelan zan?

-Mutillak bakarrik.

-Eta Ikastolan neska-mutillak alkarrekin?

-Ezta, ezta.

-Ezta, bape?

-Orduen holakoik ez euen. Neskak egoten zien mojetan. Mojetan.

-Ez, eske, auzo-eskoletan normalien alkarrekin egoten zien.

-Ba gu ez, Mondrauen ez.

-Eta San Viatorren zenbat urtera arte?

-Baaaa... hamasei urtera arte edo. Hamasei-hamazazpi urte.

-Bai, e, hainbeste e?

-Ba, hamasei, hamasei urtera arte, bai, bai. Ez e, e! Orduen ez euen ezebez gehixau e, hortxe akabetan zan e!

-Bai, bai, bai.

-A.

-Hamasei urtera arte eskolan.

-Horreik gero, gero urten auen horreik zerok. "Escuela de aprendices" eta horreik gerokuek die e. Orduen e, diruek eukenak faten zien estudixetan kanpora. Baiña zenbat? Mondrauetik hamar lagun edo e! Beste danak, hortxe akabetan zan.

-Eta lanera.

-Lanera.

-Zeure aitta-amak nunguak zien?

-Nire aitte zan Mazmelakue.

-Mazmelakua, ze etxetakua?

-Etxenausi, caserio Etxenausi. Ta ama Arrasatekua. Aitta zan Bittor Arriaran, ta ama zan Rosa Aranburu.

-Ama zer, kaletarra?

-Bai, kaletarra.

-Zenbat anae-arreba ziñein?

-Xei.

-Sei anai arreba?

-Lau mutil ta bi neska.

-Eta zu, orduen, Arano kale horretan bizi izan zara beti edo?

-Hortxe geuken guk, bizi ta hojalaterixie geuken guk.

-A, jontxo. Aitta hojalaterue zan?

-Aitte hojalaterue. Ta gero neu be bai.

-Oseake pelotari baiño lehenau hojalatero izen ziñan?

-Bai, ta gero be bai. Ta gure aittek eukiko auen orduen... hiru langille. Ta ni hasi nitzen... anai nausixena fan zan Zerrajerara, ofiziñetara. Ta ni hasi nitzen hojalatero ta, ba, hor nebillen, hojalatero.

3. Pilotan lehenengo urratsak

- **Erref:** ARR-084/004
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:07:10. **Bukatu:** 00:10:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Mutikoa zenean, Juan Bautista Azkarate "Mondragonés" pilotariarekin ikasi zuen pilotan egiten. Futbola eta pilota omen ziren orduko kirol bakarrak. "Mondragonés"ekin Bergaran entrenatzen zegoela, pilota enpresari batek eman zion bere aurrengo partida jokatzeko aukera.

Transkripzioa

-Ta hori izan da zure ogibidia denbora danian?

-E?

-Bizi danian izan dozu hojalaterogintzia ogibidia?

-Gero, orduen, pelota asuntue-ta ez euen e, oin moruen ez euen. Enpresa batzuk euzen, eta hareik ainddu ta dana eitten auen haitxeik. Ta gero... hor egon... ni pelotan zela hasi nitzen? Guk geuken hemen `Mondragones´, pelotari haundixe, kanpeoie izendakue, e!

-Izenez `Mondragones´?

-`Mondragones´. Juan Bautista Azkarate. Ta ha entrenetan zan egunero. Ta gu, mutikuek, ta faten gitzen ha entrenetan. Ta pagie emoten euskun.

-Beakin pelotan eittiatatik?

-Entrenetiagatik bai, bai, bai. Pagie. Ta gu pozik faten giñen. Orduen erriela-ta diru asko zan, e! Erriela emuten euskun.

-Kontxo!

-Bai, egun bitik behin erriel bat. Ta hori zan diru mordue!

-Ta zenbat lagun faten ziñein beakin pelotan eittea?

-Ba... ni baiño...ni, gaztiek ni ta beste bat. Baiñe bestiek zaharrauak. Ta partiduek itten gittuen.

-Bea danon kontra edo...?

-Ez, ez, ez. Bai...! Hamen mutillek pelotan ondo eitten auenak euzen, e!

-Bai, e?

-Uuuuu, hamen euzen pelotan eitten auenak baiñe...gaur pelotari izengo litzekienak. Asko.

-Eta gero eurak ez zien izen pelotaixak...

-Ez, por ejemplo, Divino. Oso ona zan ta futbolistie zan. Hor Realien ta Santanderren ta ibili zana. Patri, Realien fubolista izen zana, oso ona pelotan ha be! Ta mordue euen, e! Orduen beste deporteik ez euen. Fubola ta pelotia. Ta bizikletak be gutxik, jente gutxik euken ta bizikletie be ezebez. Fubola ta pelotie zan. Ta Mondrauen egoten zien futbolistak-eta baiña onak, e! Onak! Ta pelotarixek be bai e! Lo que pasa que... Ez euen aurrera... ez euen ta, ez euen. Ta ni faten nitzen... `Zurdo Mondragon´ek eruten nindduen ni Bergara, entrenetan. Mano manoko kanpeonato bat ebillen, ta nik orduen eukiko nittuen ba hamazortzi urte edo hola. Ta egun baten entrenetan gabitzela, enpresaixuek suertau zien han, reunixo bat eukiela edo, ta han agertu zien. Ta ni ikusi nindduen pelotan, ta `Zurdo´i preguntau utsen aber ni nor nitzen. Ta, ba, esan utsen `Zurdo´k zein nitzen ni. Ta hurrengoko astien pelota partidue ipini eustien /ipinistien/.

-Mekatxis.

-Bai.

-Hantxe zeu pelotalekuen pelotan ikusitta...

-Bai, bai.
-Ondo ingo zebe zeuk be orduen!
-Itxurie, itxurie. Ta hasi nitzen profesional ta... ba, ni gazte hasi nitzen, e!
Nik... hamazortzi urte ta erdixen gebitzela... banebillen ni pelotan!

4. Pilotari profesionala

- **Erref:** ARR-084/005
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:10:30. **Bukatu:** 00:13:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Pilotan profesionaletan jokatzen zuen, baina iturgintza zuen ogibide nagusia. Aurrerago saneamenduko biltegia jarri zuen. Joxek bere lehenengo pilota partida Ondarroan jokatu, eta irabazi egin zuen.

Transkripzioa

-Eta zureta pelotia ogibidia izan zan? Edo...
-Baiñe pelotan... ta gero lana eitten neben nik aittekin, lanien hojalatero, e!
-Bixak?
-Bai, bixak, hi! Ta gero be bai, e! Ta gero nik euki nauen almazen bat saneamientokua, ta nire anaie Pako dediketan zan hojateixara ta ni almazenien. Baiña lana beti ein dou /einddou/ guk, e!
-Oingo pelotarixek eitten daue?
-Oinguek ondo bizi die, gizona. Baiñe lengue ta oingue, ez dauko konparaziñoik be ezetan ez dauko baiña. Lengo bizimodue ta oingue? Bueno, bueno, bueno...
-Eta zer moduz fan zan lenengo partido hori? Hori enpresarixuek, zera esan dostazu, hurrengo domekarako ia partidua ipiñi otsueilla, lelengua.
-A bai! Lenengo partida, akordetan naz gaiñera! Zan Zugadi, mutil haundi bat. Ta ni txiki flako bat nitzen. Ta Ondarrun jokatu gauen, manoik mano bixok. Ta neuk irabazi nutsen, bastante samur.
-A bai, e?
-Gero lagun haudixek izen giñen, e! Berak be iñ euen gero profesional pelotan. Ibili zan. Gero lagun haudixek izen giñen.
-Ta zuei pagau itten otsuein ezer holako partiduengatik?
-Joe, pagau barik...! Zela fango gitzu, ba?
-Ez dakit, ni ez naz sekula pelotarixa izan.
-Bueno, baiña profesionalak zittuan horreik, e! Klaro pagetan euskuela. Ordurako ba gutxi zuan, baiña asko!
-Eta zela ezkonketan zittun lana ta entrenamenduak ta?
-Joder ba...lana ta entrenamentuek? Samur. Samur. Lau terdiek-bostak inguruen faten zuan Mondragonesa ta aittek esaten eustan "hala, zoiez". Ta fan, entrenau, ta gero holako zer, garbittu mosue garbittu ta oster obrara. Ta holaxe. Ta gerora ez, gero ia hobeto, gero profesional... Ta gero soldau fan nitzen, fan biher... Porke ordureko ni pelotan ondo nebillan. Ez jak /etxak/ ondo esatie nik, baiñe, ondo nebillan...primerakuekin ta nebillan ia.

5. Soldadu eta pilotari

- **Erref:** ARR-084/006
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:13:10. **Bukatu:** 00:15:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

<p>Gasteizko pilota enpresariaren aholkua jarraituz, soldadutzara boluntario joan zen. Destinoa Gasteizen aukeratu zuen, pilotan jokatzen jarraitu ahal izateko.</p>

Transkripzioa

-Ta Bitorixara fan nitzenien, zera, pelota partidue jokatetan, enpresarixuek, Efisio Alti zuan, asko gure eustan niri, ta nigaz oso ondo portau zuan. Esan justan e, [...] intendente eitten auenak: "E! Efisiok esan jok fateko hara". Beragana. Hotela ta frontoie zuan. Hotela elegantia. Fan nitzuan hotelera ta esan justan. Orduen Pepito deiketan justien niri. "Pepito, cuándo entras tu en filas? " Ta "Pues el año que viene". "No, no, no, no. Vas a ingresar voluntario."

-Han berriz.

-"Voluntario? Joer, me van a matar en casa" esan nutsan. "Me van a matar en casa". "No, no, no. Si te toca a Madrid, ¿qué pasa? ¿O a Burgos? ¿O a Barcelona? O a...". Aibadios! Ta etxera etorri nintzuan ta esan naixuan etxien, ta joe hurrengoko egunien nire ama —nire ama balientie zuan e!— hurrengoko egunien fan juan bera Bitorixara ta berakin berba ein biher auela /biauela/ ta fan zuan Bitorixara ta konbenziru juan. Ta bai, etorri zuan ta "faten bahaz e... Canariasera-edo toketan bajak, akabo!" Ta ondo egon nitzuan ni, ondo.

-A, ta orduan boluntarixoxo fanda zeuk aukeraketan zebeñ destinaua?

-Karo!

-Ez dakit, nik, [ez nauen soldauskarik ein], orduen ez dakit...

-Karo! Karo! Hi boluntarixoxo faten hitzen baiñe hantxe kuartelien egoteko. Ta ordureko harek erositte eukan danak. Kapitanok eta...

-A bai, e? Preparauta eukan orduan e?

-Preparaute.

-A, orduan Bitorixan ein zebeñ soldaduska hori?

-Bai. Hiru urte, e! Hiru urte. Baiñe ondo, ondo, ondo.

-A, boluntarixoxo fanda luziaue zan?

-Hiru urte. Hiru urte egon biher zittuan /bizittuan/.

-Eta pelotan be eitten zebeñ, soldauskan egonda be?

-Jode, karo, zegatik fan nitzuan ba! Zegatik fan nitzuan ba?

-Oseake besti horrek ia...

-Ni boluntarixoxo ez nitzuan Franco defendiruten fan e! Pelotan han geraketako.

-Ia, ia...

-Ni ondo bizi izen nitzuan.

-Orduen zu soldauskan zengozela igual Donostian eta...

-Karo, edozein tokittara, edozein tokittara.

-Bai, soldauska ona.

-Bai, ona, ona, ona.

-Bueno, bueno.

-Goxien fan kuartelera ta atsaldien libre.

-Ta han kuartelien bertan baeuen frontoirik edo?
-Baitte. Han be entrenetan gitzuan. Frontoi ederra jeuan. Abiertue baiñe ederra.

6. Beste garai bateko pilota jokoa

- **Erref:** ARR-084/007
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:15:55. **Bukatu:** 00:18:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Joxek gogoratzen duen partidarik gogorrena "Zurdo de Mondragón"en kontra Bergaran jokatu zuena izan zen. Sake libreria jokatzeko orduan pilotan. Garai hartako frontoiak, pilotak eta arauak ezberdinak ziren.

Transkripzioa

-Zein da zeuk goguan daukatzun holan partidarik gogorrena, edo esangusatsuena edo?
-Bueno, hainbeste izen dattuk... buuuu... Nik bat, gogorrena... `Zurdo Mondragon´ek eta nik manoik-mano jokatu gauena Bergaran. Jodeeee... ixte hil ein gitzuan.
-A bai, e?
-Puf! Hori Zurduoi gogorra zuan ta pufa! Ni baiñe zaharraue zuan Zurdue e. Ni baiñe... beratzte urte gehixau jauken hak. Ta orduen nik zenbat urte eukiko nittuan, ba, hogeta bat urte edo.
-Ta kriston palizia hartu zeuen?
-Puf!
-Zenbat akabau zan partiduo?
-Hogeta bana iguales, ta neuk irabazi. Orduan sake libre zuan, e! Sake libre badakik zer dan?
-Arraia barik?
-Sakie joteko hik gure doken /guroken/ lekutik. Pasak bai. "Tres y medio y siete". Baiñe gero sakie hik gure doken lekuen ein, txapa onduen gure badok eta, hik gure doken /guroken/ lekuen.
-A, aurretik be atara zeiken, e?
-Bai, bai, bai. Aurretik ataratie, libre horixe dok ba.
-Aaaa.
-Sake libre horregatik dok.
-Joño. Baiña, osea, hiru ta erditik atzera bota biher zeбен.
-Karo. Ta pasa pasa, ta falta falta. Baiñe sakie hik gure doken /guroken/ lekutik botatie. Zabaletik, zulotik, hik gure doken lekutik. Orduen diferente zuan dana.
-Ta hor zailaua izengo zuan sakia restaittia, ezta?
-Joder!
-Eta oingo...
-Baiñe frontoiek be diferente, e!
-Bai, ta oingo pelota zer pentsaitten zatzu zuri?
-Oingo pelotak ba... larreikuak jabitzak.
-Bizixeixak, ezta?
-Larreikuak, larreikuak. Larreiko pelotak dattuk horreik. Gero frontoiek be diferente dattuk. Lehen losak jazan, ta oin zera dok, aglomeratu bat dok eta, diferente. Dana diferente.

-Lehen potrak be gehixau, ezta?
-E? Bai ba, a koxkie? Bai, beti be koxkie ta.

7. Gerraostean euskara baztertu

- **Erref:** ARR-084/008
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:18:05. **Bukatu:** 00:20:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Gerrarekin ikastolak kendu eta eskoletan euskaraz mintzatzea debekatu zuten. Maisuak jartzen zizkien zigorrak gogoan ditu Joxek.

Transkripzioa

-Eta bueltauta ikastola garaira ta. Zu ikastolan hasiko ziñan hogeita hamaikan, edo hogeita hamabixan edo...
-Bai, holako baten.
-Ze giro... osea, klaro, euskerazko klasiak ba ordutxetik haik eta ikastolak hemen hasi zien arte ba...
-Ordurarte.
-Ba berrogei ta... ba hirurogeixan ixixa. Hirurogeixan ixa hasi zien atzera ikastolak hemen.
-Hirurogei baiño geruau.
-Mmmm hirurogei ta akabera...
-Gerrie, gerrie akabau ta segittuen hoik ikastolak ta honeik fuera! Honeik danok. Hori izen zuan e... ta Euskeraz ezin ein! Ta guk kanika bat eukitten gaixuan. Viatorista batek emon, ta baten bati entzuten badutsek errekreuen euskeraz, hik hari emon biher utsan /bitzan/. Ta bestiek bestiei. Makiña bat bider egon nok ni, kastigaute! "No hablaré más en Euskera, oooo en Vascuence". Orduen Vascuence zuan.
-Bai. Ta hori eskribidu biher?
-Jooder. Kastigaute.
-Zenbat bider?
-Baaa ordubetien igual.
-Hori eskribitten?
-Bai, bai.
-Oseake San Viatorren...
-San Viatorren itxurie ez dok...
-Fraille, fraill...
-Frailliak! Frailliak ez hittuan, mezadunak ez hittuan. Zuan leguek, baiña frailliek.
-Eta kanikiakin, e?
-Jooodeeee, ha izeten zuan e...
-Ez, baiña aurretik ikastolan, karo, zu umia izango ziñan baiña e...
-Gure aurrekuek be iguel-igual!
-Baiña eskola-giro jatorraua zan gerra ostekua baiño? Eskola girua. Edo antzerakua zan?
-Iguela! Bata erderaz ta bestia euskeraz. Girue iguela! Maixue maixo, eta hori, errespetue ta... eskolan letxe, beste eskolatan letxe, iguel-iguel.

8. Mutikotako jolasak

- **Erref:** ARR-084/009
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:20:16. **Bukatu:** 00:22:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Pilotan eta futboleko jolasten zuten mutikotan. Pilotak nola egiten zituzten azaltzen du.

Transkripzioa

-Ta ze jolas klase itten zittuein mutikuen artien?
-Errekreuen ta?
-Bai.
-Ba pelotan ta fubolien.
-Ez zan besterik, txirikilletan ta holakotan ez zeuen itten?
-Txirikilletan ta hori neskatiñak ibiltten zittuan.
-A bai?
-Gu gero ba, "diez veinte"ka ta. Badakik zer dan? "Diez, veinte" ta hori...
-..."diez veinte"ka?
-Pote-poteka ta. "Diez, veinte" ta gordetia zuan. Gorde nunbaitten ta...
topetan ta... holako gauzak!
-Geuk be in dittugu holakuak e.
-Bai... pentsetan juat nik. Pentsetan juat. Gero gast... gero hori gastau
zittuan e!
-Bai, oingo neska-mutillak ez dot uste holakorik...
-Eeeeeee...! Honeik e... Horreik e...
-[...] ta harrapo-harrapoka ta ibiltten giñan.
-E?
-Harrapo-harrapoka ta.
-A ez jakixat /etxakixat/ hori...
-Ez, ba, bi talde ein ta bata bestiak harrapaittera. Ta harrapaitten zana
ikutu ta geldik egon bihar.
-Aaaa horixe bai, ikuketan, ikuketan. Bai, geu be holaxe ibiltten gitzuan!
Horretxek jokuok. Gero kanikaka. Kanikak... besterik ez jauan /etxauan/ e.
-Baiña, orduen, zuek pelotan ume-umetatik hasi ziñein.
-E?
-Han, ikastola ondoren ume-umetatik pelotan ia.
-Ume-umetatik. Orduen mun... danak itten gauen baiña pelotan ondo!
Danak ondo pelotan. Ta futbolien be bai e. Muti... besterik ez jauan! /
etxauan/. Pelota zaharren bat hartu ta futbolien.
-Ta hori nundik, nundik ataraten zittuein pilotak?
-Pilotak? Ba kanika bat edo zerbait hartu eta tal ta... lanazko pilotak-eta
itten gittuan, amai lanie kendu eta, ba, lanazko pilotak!
-Gero esparadrapuakin pegau...
-Esparadrapuekin holako zer batzuk ein ta ya esta! Ta beti be amak e ba
puntu batzuk emuten uskuan, ta ba ya esta. Horretxek zittuan... Oingo
moduen?
-Ia, ia, ia.

9. Joxe aitaren baserrian

- **Erref:** ARR-084/011
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:22:38. **Bukatu:** 00:26:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Gaztetan asko joaten zen aita jaio zen baserrira, Mazmela auzoko Etxenausira. Hamasei urte zituela artzaintza, itaurreko lana eta baserriko lan ugari ezagutu zituen. Mazmelako artzain handienetako bat zen Joxeren osaba.</p>

Transkripzioa

-Zuk esan dozu kalien jaixo ziñala.

-Bai.

-Kalien, kaleko etxien ura ta argiindarra ta umetatik ezautu izan dozu?

-Baaa! beti.

-Normal?

-Beti, normal.

-Te zeure aittan baserrira faten ziñan?

-Bai, asko! Bakaziñuetan ta [astebetien] egoten gitzuan! Mazmelan gu.

-Ta ze... Etxenausin?

-Etxenausin. Ta Karriona. Bi baserri geukan guk. Etxenausikuek zittuan aitten... basarrixe. Ta Karrionenekue, arrebie ezkondu zuan Karrionenekuekin.

-Aittaren arrebia?

-Bai. Ta bi basarri geukan guk. Ta udan hantxe egoten gitzuan. Ta gero gerra... Hi! Ta gerra denporan, bestiek e... hor jabitzan nunbaitten, ta pastore ibili nitzuan ni! Tiokin.

-Ardixekin?

-Honbre!

-Ta ganauek, zera ta... ittaurren ta... garixe ebaten ta danien in juau guk, e!

-Kontxo!

-Honbre!

-Pastore nora faten ziñan? Andarto... zera, Degurixa aldera edo?

-Zerera, Alabittara. Aitxorroztik aurrera. Horreik dittuk e, Elgea aldera joten juek ba baserrixe...

-Bai, bai, bai, bai.

-Hara faten gitzuan.

-[Arabako mugan].

-Hara, hara faten gitzuan gu.

-A, han itxabolia bazeukotzuein?

-Txabolie be bai.

-Ta ardixek jaitzi ta zeuk itten zittuen?

-Honbre!

-Ta gaztaia?

-Gaztaia tiok. Gaztaia tiok.

-Eta gaztaia han itxabolan itten zeuein, edo...?

-Txabolan. Ta gaztaie aumetako, tximinixa bako txabolie, han. Sue ein, ta keia atara hari ta ba holaxe!

-Lo ez zeuen ingo...

-Lo bai.
 -Lo ez zeuen ingo gaztaiekin, ezta?
 -Bai, baiña holako zer bat aparte geukan ta, ta han lo.
 -Ia, ia. Ta hori zenbat urtekin?
 -Hori ia... hamaxei urtekin ia. Hamalau-hamasei urtekin. Orduen mutikue ia.
 -Eta gazuriekin txarririk edo...
 -Txarrix ta gazurie ta zera, asunekin zertu ta... txarrix ta jana bota...
 -Haik txarrixak gozuak izengo zien...
 -Bai.
 -Ta ze eitten zeuein, txarrix ta etxian hiltten zeuein edo...?
 -Etxien.
 -Edo Arabara saldu?
 -Etxien... etxerako, etxerako txarrix.
 -Ez, zegatik hor Degurixan ta e, kargalekun ta egozen pastoriak...
 -Bai.
 -Nola bakoitzak hiru-lau txarri hazten zittuen...
 -Ez, guk etxerako hartzen gittuan.
 -Ze zeukain, artalde haundia?
 -Baaaaai. Inportantie. Inportantie.
 -Zenbat ardikua, gutxi gorabehera?
 -Aa... ehunetik gora. Ehunetik bastante gorau.
 -Orduan artalde formala.
 -Bai, bai, bai. Hor jazan Mazmelan, bi jazan. Etxenausikuek eta Kapelenak. Bi. Pastore... ardi ta... Ta pastoriek asko jazan han orduen e! Alabitten asko! Atxorrozpekue, Agarreke, Nagiturrikue, Kapelena, Agarreke, Etxenausikue... eta bestie nor zuan...? Beste bat be bajauan.

10. Baserrian gustura egoten zen

- **Erref:** ARR-084/012
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:26:10. **Bukatu:** 00:29:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

<p>Eskolako oporraldietan Joxe baserrira gustura joaten zen. Etxenausiko behiek sariak irabazten zituzten Arrasateko ferietan. Argindarra eta ura baziren baserrian, baina bainugela berak jarri zuen geroago. Pujeta (lixiba) egiten, latsarria eta labesua ezagutu zituen Joxek baserrian.</p>

Transkripzioa

-Oseake, orduen, bakaziño denporan, ez ziñan kalia egoten.
 -Gutxi, gutxi.
 -Basarrira.
 -Basarrira. Gustora. Gustora.
 -Ta zenbat ganau buru zeukotzuein?
 -Ganauek eukitten gittuan guk e, gure basarrixen, xei-zazpi hola, ta astue gero.
 -Ta idirik?

-Idirik ez. Lanak itten gittuen zerak... hau nun ifintten dok?

-Hementxe.

-Lanak itten gittuan goldan ta, burdiñaran ta, zerien e, behixekin.

-Behixekin? Uztarr.

-Behixek edarrak e! Mondrauen birriten e, lelengo premixue atara zittuenak. Behixek.

-Bai? Ferixan? Baiña Santo Tomasetan edo?

-Santo Tomasetan, bai, bai, bai, bai. Birriten. Bi urtetan.

-Horreik, uztarriko behi horreik?

-Bai, bai, bai. Baiñe behixek zelakuek! Bueno, gobernau be holaxe e, gure tion etxien, gobernau be.

-Ba bai, lanerako...ganaua..

-Joe.

-Han gogor ein biher.

-Gobernau ondo e.

-A orduan zu zeu be ittaurrian ibilitta zaz?

-Bai, bai, bai. Atzetik be bai! Burdiñaran ta atzetik be bai.

-Burdiñaran, e?

-Bai, bai, bai.

-Eta Etxenagusi horretan, zu hara faten ziñanien, goguan dakotzu inddarra ta ura ta zela eozen? Etxe barruan baeuen urik?

-Bai, bai, bai, bai.

-Bai?

-Bai, bai. Kuarto bañorik ez jauan /etxauan/, gero in gaixuan geuk. Kuarto bañua. Ia mutil in giñenien, ia kuarto bañua in gaixuan geuk.

-A, karo, gaiñera zeu hojalatero, aitta...

-Bai, bai, bai.

-... ta semie hojalateruak.

-Baiñe ure, depositto bat jauan han ta etorten zuan, ta hor metal ura geukan aldamenien, erateko.

-Itturrixa, edo posaderia edo zer zan?

-Ittu... zer bat... tubo bat ez, harrixte zertute, biher dan moduen ein ta handik etorten zuan ure!

-Eta hor Etxenausin andrak erropak-eta nun garbiketan zittuein?

-Pujetie.

-Pujetia?

-Honbre.

-Eta gero...

-Ogixe be bai. Hor, labie!

-Baiña alberkarik edo baeukein etxe inguruen? Ze pujetie gero akklaraitteko han ura biher dozu /biozu/.

-Bai, ba, esaten dustat /esateustat/ ba ure jaukiela ba, depositto bat eukien ta!

-A! eta akklaraittia eta dana etxe barruan itten zan e?

-Bai, karo.

-Ez, baserri askotan alberkie ipintten euein arropie garbiketako.

-Ez, ez...bai, a! Hori baaukien! Alber... bai, zera esan gure dok /gurok/? Fregaderie edo zeroi?

-Baiña etxetik kanpo.

-Etxetik kanpora bai, bai, bai.

-Ta harrixa erropak joteko eta.

-Bai, baitte, horreik danok, gizona. Joe. Horreik danok. Ogixe be etxien itten zuan e.

-Pentsaitten dot.

11. "Bittor hojalateruena" denda

- **Erref:** ARR-084/013
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:29:10. **Bukatu:** 00:31:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Arrasaten gerraostean gosea ezagutu zuten; Joxeren familiak ez hainbeste, baserriko gauzei esker. Amak denda zuen, eta baserritar askorekin harreman ona. Denda horri "Bittor hojalateruena" deitzen zioten.

Transkripzioa

-Ta zuk goguan daukotzu garixa ta artua ta entregau biher izaten ziela ta gero, gerra ostian?

-Bai, bai.

-Arrazionamentu garaixa ta.

-Bai.

-Zueik kalian bizitta arrazionamentua sufriruko zeuein, ezta?

-Mondrauen gosie pasau zuan. Gosie. Guk, Jaungoikuei eskerrak...

-Bai, basarrixa, ezta?

-Basarrixekin ondo arreglau gitzuan. Ondo arreglau gitzuan. Ta gero, guk e, suerte haundixa euki gaixuan, orduen gure etxera gauzak erosten-ta basarritar asko etorten zuan. Gure denda bat jaukan amak, han egoten zittuan e, ba, behiak batzeko zerak ta, zerak eindde ta, gauza guztiek egoten zittuan. Baldiek eta, barriñoiek eta, danerakuek jauan han. Eta hara jente asko etorten zuan ta guk... beti ekarten juskuan zerbait. Batak zera, patatie ta bestiek ez dakit zer, ta... beti ekarten juskuen. Ta hor basarritik asko.

-Karo igual diruekin orde, janakin...

-Bai, bai, bai. Nik uste juat e, nik hola uste juat arregletan ziela.

-Ta zela eukan izena denda horrek?

-Ba Bittor hojalateruena. Ta ez jaukan /etxaukan/ izenik gehixuan. Bittor hojalateruenak zittuan gure ezaguntze... gurie be gero pelotarixek in gitzelako baiñe... "Horreik zeintzuk dittuk?" eta "Bittor hojalateruen semiek".

-Aja. Oseake dendia Bittor...

-Rosa, Rosa. Ama Rosa zuan.

-Baiñe dendia Bittor hojalateruarena?

-Bueno, hojalaterixie ta dendie leku baten jauan ta... bai. Bittor hojalateruan etxie deketan juskuan hari.

-Aja. Orduan, denda horretan, zerak, balde ta barriñoi ta holako zerak?

-Bai.

-Ta behiak batzeko zer esan dozu ibiltten ziela?

-Zerak e, ardixek batzeko badakik zer. Aittek itten jittuan horreik gauzok! Hojalatiekin. Katxarruek.

-A! Aittek berak itten zittun?

-Berak itten jittuan!

-Osea, baldia esan gure dozu.

-Baldiek eta horreik berak itten jittuan.

-A joño.

-Bai.

-Hori soldiuta edo?

-Soldiuta. Txapa galbanizauaz posalak eta. Horreik. Ekarri be bai, eta in be bai itten zittuan.

12. Gose larria Arrasaten gerraostean

- **Erref:** ARR-084/014
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:31:58. **Bukatu:** 00:34:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Arrasaten gose larria ezagutu zuten, jendea hiltzerainoko bestekoa, dio Joxek. Falangisten "Auxilio Socialen" banatzen zen errazionamendua. Joxek pilotan jolasten ziharduela, frontoian bonba bat erori zen.</p>

Transkripzioa

-Eta esan dozu, orduen, gose asko pasau zala Mondraguen?
-Mondrauen bai, Mondrauen bai. Hil be bai jentia, gosiekin.
-Gosiak, e?
-Bai, bai.
-Bai?
-Bai. Hil be bai. Orduen gose haundixa jauan, e.
-Hori razionamientuoi zer moduz fan zan?
-Razionamientue, ba, hantxe plaza aurrien emuten juen. Gaur zapaterixa bat jak han. Ta hantxe egon zuan. "Auxilio social" edo zer zuan ha? "Auxilio social" edo deiketan jutsen. Falangistak emuten juen. Mondrauetarrak e! Falangista jantzitte ta... Emakumiek eta... Baiñe fan ein biher haraxe.
-Egunero?
-Egunero, klaro.
-Ta zer partitten euen?
-Ba, dauena. Babak edo. Patatak edo. Ez jakixat /etxakixat/ nik zer emuten juen. Gu ez gitzuatan faten, e.
-Klaro, zueik nehikua zeukatzuein...
-Bai, bai. Baiña jente asko, e! Jente asko, e!
-Ta artien be gaixki!
-Artien be gaixki. Joer. Hamen gogorra izen zuan e! Gerra denporie gogorra e. Ez zuan bromie gero, e!
-Ta zu, gerrie bera izen zanién, zer egon ziñan, Mazmelan egon ziñan edo?
-Gu gerra denporan... hor kaiñonazo bat etorri zanién, gu pelotan gabitzan frontoi haundixen. Oin ba jak ba frontoi haundixe? Ta hantxe horman jo juan.
-Kontxo! Ta zeuek pelotan.
-Pelotan! Guk gerrie ta zer gakixan ba guk! Zer gakixan ba. Hor ez jakixat / etxakixat/ nundik bota juen zera ta horman jo juan ta. Jausitta egon zuan urtietan ha! Gero arreglau juen baiñe. Ta orduentxe...
-Ba susto gogorra hartuko zeuen, ezta?
-Bai. Baaa zera, gu refugixora "echando chispas" ta kitto.
-Nun euen refugixo hori?
-Refugixua jauan hor e, portalepeien. Maixorren etxie. Ta hara sartzen gittuan gu.

13. Etxeko umeak Eskoriatzara babesera

- **Erref:** ARR-084/015
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:34:00. **Bukatu:** 00:36:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Gorriek Arrasate bonbardatzen zutenean, nazionalek herriko plazara ateratzen zituzten preso zituzten gudariak. Joxe eta bere anai-arrebak aitaren baserrira eramane zituzten orduan, Eskoriatzara.

Transkripzioa

-Hor bonbardeo zerak-eta hasi zienien... bonbardeue be egon zuan hor. Presuek atara jittuen plazara, e! Ta abioie etorri zanién bota be bai bonbie! Ta ez jua /etxuan/ errebentau!

-Kontxo.

-Ez jua /etxuan/ errebentau!

-Osea, presuak, nazionalistak?

-Karo, karo.

-Osea gudarixek?

-Gudarixek-eta, ba, gudarixek edo gure danak! Behintzet frankistak edo españolistak ez zienak, hor kartzelan jazan. Ta atara itten jittuen, e! Plazara, e!

-Ta, osea, haik aber harrapaitten zittuen...?

-Bai! Ta bota jua bonbie, baiñe hantxe itturri bat jua ta hantxe kanpua jo ta apurtuta hantxe egon zua. Guk ikusi gaixua. Ta gero gure aitte-ta sustau zittuan ta erua gindduan basarrire.

-Ta ha Mazmela inguru haretan trankillau egon zan?

-Bai...

-Handik be batzuk ihes in bihar izan euein.

-Bai, bai, baiñe hor e...

-Hor Urezaundiko, Urezaundiko...

-Urezaundikuek-eta bai, bai.

-Hareik hanka in biher izan euein e.

-Bai, bai. Eta hor be gero Mazleman be pasau zua, hemen Kurtzeta hemen jak! Ta Mazmela hortxe jak! Ta hor egon zittuan holako zerak eta, gabetan etorten zittuan gorrixek harutze ta... ni mutikue baiña akordetan naz zerbaitteaz... zerbaitzuaz akordetan nintzua. Ta hantxe egon gitzua gu gero. Hantxe.

-Ia, kalia baiño trankillau.

-Karo, Mondraue peligosue jarritte jua ta.

-Aitte ta ez e. Aitte ta ama etxien. Ta gu hor, nunbaitten.

-Eta zuk hor Etxenagusin e, Etxenagusin ez daukotzu gogua gaurik kendu ein otsuein edo...?

-Ez, holakorik ez zua /etxuan/ pasau.

-Etxe askotan pasau zan hori.

-Ez, holakoik ez, hor ez. Hor ez zua /etzua/ holakorik pasau. Ba, beste leku batzuetan bai.

-Eta, orduan, Etxenagusin, denpora dana etxian egon ziñein? Zuek ez zeuen euki soldaurik etxian ta holakorik?

-Ez.

-Ta lapurretari eta ez zeuen euki.

-Ez, ez, ez, ez.

-Zegatik baserri batzuk ba igual hor ola beste auzo batzutara fan ta baserrixa hutsik itxi ta bueltan dana...

-Ez, ez, ez, holakorik ez zua /etzua/ pasau Mazmela. Mazmela-ta ez zittuan pasau holakorik.

-Ia. Oseake bonbazua orduan pelotan zabitzeilla.

-Bai, mutikuek gabitzan, ba, hantxe!

-Joe.

-Ta beste baten Portaloipeien errebentau jua beste bat ta hil zittuan Kortabarria ta... bi edo hiru hil zittuan Mondraue e. Bi edo hiru hil zittuan.

-Eta bonbak etozen, zera, Elorrixo aldetik, edo?

-Kanpazar aldetik esaten jua. Hala esaten jua.

-Bai, han egon zien ba Elorrixon ta...

-Bai, bai, handik esaten jua...

-... gudarixak, milizianuak edo...
-Bai, bai, handik esaten juen.

14. Gerran senidea galdu zuen

- **Erref:** ARR-084/017
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:37:58. **Bukatu:** 00:40:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gorriek lau eskopeta besterik ez zituztela dio Joxek. Osaba bik hanka egin behar izan zuten, eta beste bat, udaletxeko diruzaina, fusilatu egin zuten Oiartzunen.

Transkripzioa

-Eske hor pasau zuan e... egunez sartzen zittuan zerak, hamen be, Kurtzetan-ta letxe e, egunez militarrek sartzen zittuan ta gabien bestiek bieltzen jittuen, ta hola ibili zittuan hemen. Hamengo gerriek e, zelebrie... bueno, ordurako gerrie zuan, baiñe gaur zelebrie izengo litzakek. Gaur zelebrie izengo litzakek.

-Bai, gaur jenderik ez da biher izeten ta.

-Zera, tira tira, tira.

-Makiñekin, ta abioiekin ta zerakin...

-Karo. Orduen bonbamanosak eta botaten... [horixe] zuan gerrie. Ta honeik gorrixok ze aukien ba, lau eskopeta aukien ta. Joe.

-Bai. Ba, neri kontau izen dostai, karlisten gerratan, oseake hemezortzigarren...ez, hemeretzigarren gizaldixan, makillakin itten eueilla...

-Bai, bai, bai, bai.

-... ez ezpataik eta ez...

- Hau be antzerakue zuan, hau be, e. Hau be antzerakue. Eskopetakin ta... ze, ze jaukien ba? Ze jaukien ba?

-Zeuk seniderik ez zebe /etzen/ euki gerran?

-Bai, gure Mazmelakuek eta bai ibili zittuan. Ta zerak bai, gero, primuek-eta bai. Ta baiñe nire primuek-eta alde in biher izen juen. Batzuk fan zittuan, tiuek eta, bata Galiziara-edo fan zuan, tio Juan Cruz. Ta...

-Baiña ihes inda, edo...?

-Iges inda, iges inda. Gero tio Andres fan zuan Venezuelara edo, Carakasea edo. Ta niri tio bat afusillau eustien.

-Kontxo.

-Anaie, aman anaie. Horretxekin abariokin.

-A bai... horreikin batera? Oiartzunen edo...

-Bai, bai, bai...

-Ze pekatu [euken] ba?

-Ze pekatu?

-Tio horrek.

-Ha zuan "no se qué de fondos del ayuntamiento", ta harek iges in juan, ta diruek eruen in jittuan. Ta Durangoraiño allegau zuan, ta esan eutsien / esautzien/ lagunei "E! Ni ez naixuek, ni honeaz, ni diru honeaz ez naixuek. Nik honeik entregau ein biher jittuat /bijittuat/", ta "Ez ai fan, ez ai fan, garbittuko haue ta. Hiltten jabitzak eta ez ai fan". Ta bestiek ezetz. Berak entregau ein biher auela /einbiauela/, eta etorri in zuan, ta entregau in

zuan. Entregau jittuan diruok.
-Hamen, hamen, udaletxien?
-Bai. Ta etxea fateko esan utsien /esautzien/ ta fan zuan etxera.
Hurrengoko egunien erun juen ta "hasta hoy. Hasta hoy". Pentsaik. Gero honraue izen biher hazela /izenbihazela/. Bai, bai...

15. Oiartzunen arrasatearrak fusilatu

- **Erref:** ARR-084/018
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:40:50. **Bukatu:** 00:42:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Osabarekin batera hiru abade fusilatu zituzten Oiartzunen. Hirurak ezagutzen zituen Joxek.

Transkripzioa

-Ta horreik Mondraueko abariok? Horreik hirurok ezauketan nittuan nik e!
Don Josegatik, parroquegatik esaten juen nire zaharrak, ni pelotan hasi nitzenien, tasixien ta faten gitzuan, ta ni irueten nindduen. Ta harein konbersaziñuek eta, ta hori Santue zuan e! Hala esaten juen e. Don Jose Joakin Arin. Bestie Markiegi ta bestie Guridi.
-Guridi Oñatikua.
-Guridi Oñatikua. Luixen taberna, Luisen tabernakue.
-Eta jo, neri, ez dakot goguen nok, baiña preguntauta ia ze pekatu in euein abare horreik, batek esan ostan euskaldun ikastola antzerako zerbait ipiñi eueilla horreik euren zerien. Euren abaretxien edo...
-Abadetxien, ikastolie jauan!
-Ba, ta hori ba eurak ipiñitakuan...
-Ta hori dok zera?!
-Garai baten hori...
-Delitue hori dok?!
-Garai baten hori delitua zan.
-Bueno, bueno, bueno...
-Falangistentzako bai.
-Bueno, bueno, bueno... Lotsarik be ez jaukiek /etxaukiek/ ta.
-Ezta bape be.
-Lotsarik pe ta...

16. Gaztetako dantzak

- **Erref:** ARR-084/019
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:42:09. **Bukatu:** 00:44:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Plaza erdian zegoen kioskoaren bueltan gazteek dantza egiten zuten, gurasoak begira zeudela.

Transkripzioa

-Eta alaixauak. Zuek erromerixa ta dantza ta nora joteko joeria zeukatzuein hortarako? Han Mondrauen bertan plazan itten zeuein dantza, edo?

-Plazan, Mondraueko plazan, domeketan.

-Zein egoten zan, Julio eta honeik jotzen euein han edo?

-Zein Juliok?

-Julio Galartzak eta, Torresek eta. Edo zu baiño zahartxuauek die horreik?

-Horreik zaharrauek dittuk ni baiño.

-Torres tanborillakin ta Julio txistuekin ibiltzen zien.

-Bueno, horreik txistularixek zittuan.

-Ia, baiña, niri esan ostan jotzen eueilla bandan, bandiek eta...

-Ta gero musika, bai, plazan be bai. Horreik e, sueltue jotzen juen.

-Bai.

-Ta gero bandie jauan Mondrauen ederra e. Ta kioskua jauan erdi-erdixen. Plaza erdi-erdixen. Ederra kioskua! Hak, ha lastimie kentzie. Joeeeee. Eta holaxe bueltan, dantzan itten zuan, ta aittek...

-Ta bandie kioskuan, ezta?

-Bai. Aittek eta amak eta dana ikusten, ta semiek eta alabak-eta dantzan. Nik hori bizi izen naixuan, baiña gutxi, porke ni pelota partidua jokaketan faten nitzuan, ta beratziretan akabetan zuan musikia, ta gu berandu etorten gitzuan. Ta gu afaldu eta kalera urten orduko... akabauta egoten zuan dana. Ta gero tabernak be hamabixetan zerretan zittuan e! Taberna danak hamabixetan zerrauta, e. Ez oingo moduen, goixeko xeiretan ta. Hamabixetan fuera! Serenuek etorten zittuan ta aide!

17. Inguruetako erromeriak

- **Erref:** ARR-084/020
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:44:07. **Bukatu:** 00:46:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Aretxabaleta, Bergara eta Oñatiko erromerietara joaten ziren batzuetan. Bedoña auzora joateko senda gogoan du Joxek. Otalora Zelaita, San Prudentzio eta Santa Agedako erromerietara ere joaten ziren. Auzoetako jaietara joateko baimena erraz lortzen zen lantegietan garai haietan. Jendea zoriontsuago bizi omen zen, behar gutxiago zeudelako.

Transkripzioa

-[Eta beste herri batzutako jaittan, edo auzotako]... ta fateko ohitturarik izaten zebe?

-Nik gutxi. Baiña bai, izeten juen! Baiña nora, Bergara! Oñatira, Atxabaltara. Ta holakotxietara, gehixau ez jauan /etxauan/ hi! Ez jauan /etxauan/ baiña ezer! Ez jauan /etxauan/ ezer.

-Eta auzoko jaittara, Bedoñara edo...

-Ba, gutxi. Bai, batzon batzuk bai baiñe jente gutxi. Ta oiñez fan biher zuan e. Ta... Bedoñarako senda bat jauan bakarrik e. Ta burdi bide bat. Gehixau ez jauan /etxauan/ ezer. Oin jazak karreterak eta, lehen ez jauan /etxauan/.

-Baiña orduan igual dantzia gusto gehixaukin ... janaldixa lelengo zera ta...

-A holakuek ta bai, Otala zelaira ta hori bai. Gero zerera, San Prudentziora askotan. San Prudentziotan oiñez jentia! Santa Agedara be bai! Santa

Agedara ta orduen... Santa Ageda egunien atsaldien jai hartzen juen jente askok e.

-Kontxo.

-Bai, erromerixara, horraxa!

-Baiña jente asko herri danekuak edo Santa Ageda auzokuak bakarrik?

-Ez, ez, ez, herri... Mondrauekuek be bai. Santa Ageda atsaldien. Orduen jai be samur emuten zuan e. Permisue eskatu ta harako dala edo bestie... samur emuten zuan orduen. Gaur papelak eta erun biher dittuk /bittuk/, baiñe orduen... Orduen ez jauan /etxauan/ halakorik. Orduen ez jauan /etxauan/ halakorik. Orduen beste modu baten bizi gitzuan. Ta gaur baiño gauza gutxiaugaz, baiña nezezidaderik be ez gaukan guk, ez gaixuan ezauketan ta! Entendiruten dustek, ze esaten jaken, e?

-Bai, bai, horixe, horixe bai.

-Ez gekixan, bai. Eta konforme.

-Ba bai. Hor ez kotxerik ez...

-Beeee... konforme. Oin uste dok gu baiño hobeto bizi diela honeik? Ke ba! Honek jaukiek guk ez gaukan gauza asko, ta onak, gaiñera.

-Baiña gauzak bakarrik.

-Baiña... konformidaderik ez jaukiek /etxaukiek/!. Gu, barrez, "Joñoooooo nun egon zara?" eta "Bergarako fiestetan!" ta jodeeee iasta, iasta! Oin barrez fiesta egunero jaukiek.

-Bai. Ta alde guztietan.

-Eguakotx guztietan, "pum" urten ta zapatue ta akabo. Baiña len? Tira, tira, tira, tira. Len domekie domeka zuan, ta oin, barrez, ezer be ez. Diferente dala dana, dana, dana.

18. Trenbide zaharrak; salbokonduktoa

- **Erref:** ARR-084/021
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:46:49. **Bukatu:** 00:49:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Gasteizen pilota-partida jokatu eta azkenengo trena galdutakoan, bertan egin behar izaten zuen lo. Gasteiztik Maltzagarainoko trenbidearen geltokiak aipatzen ditu. Gerra denboran, Mazmelara trenez joateko, ibiltzeko baimena atera behar izaten zuten udaletxean.

Transkripzioa

-Hik preguntau dustek zelan faten gitzien gu pelotan-ta ta. Je! Trenian hartu, Bitorixan jokatu, gabeko trena galdu eta bertan lo ein biher! Bertan lo ein biher! Holaxe faten gitzuan.

-Karo, gabian be, ba, igual hamarretan edo hamaiketan izango zan azkenengo trena.

-Zer, gabien? Azkenengoko trena honako? Zortzi tt'erdietan!

-A bai, e?

-Karo! Beratziretan Mondrauera aillegetan zuan. Ba, zortzietan azkena. Zortzietan, porke...

-Hori trenori e, Bitorixatik Mondrauera nundik pasaitten zan? Gatzaga ingurutik edo?

-Gatzaatik.

-Nik idearik trenbide horrenik...

-Bitorixatik Landara. Landatik Mariñera. Bueno, Gatzaa. Gatzaa, Marin, Mazmela, Eskoriatza, Atxabalta, Mondraue, ta Maltzagaraiño.

-Hor erripa haundixa egongo zan, ba, ezta?

-Bai. Buelta haundixek, hola, bueltaka. Bueltaka. Erripie baiño, buelta asko, kurba asko. Ez dakit zenbat zera. Ixa ordubete itten juan Mondra... zeretik, Bitorixatik Mondrauera. Bueno, geratu be leku askotan e, trena.

-Bai, orduan auzo danetan.

-Bai, bai. Mazmelan be geraketan zuan ta. "Apeadero" edo deiketan jutsien horreiri.

-Hori da. Eta gerra denporan, Mazmelara juateko ta, ez zeuen biher izeten salbokonduktua ta?

-E... hamen egoten zuan... gerra denporan Eskoritzan egoten zuan zera, kontrola. Ta Mazmelara fateko-ta bai, bapel bat biher zuan, aiuntamientuen atarata.

-Salbokonduktua.

-"Salboconducto", hori dok. Salbokondukto.

-Bai, niri jende askok komentau dost.

-Bai, bai, bai. Salbokonduktua. "Nora fan biher dozu?" ta aiuntamientura fan ta salbokonduktua atara biher. "Caguen la puta leche... San Dios..." Holakorik ondio, holakorik ondio...

19. Pilotari esker ezagutu zuen emaztegaia

- **Erref:** ARR-084/022
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:49:10. **Bukatu:** 00:52:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Azkoitiko Enkarnazion Elortza hartu zuen emazte. Seme bi ditu. Pilota partida baten ostean ezagutu zuen emaztegaia.

Transkripzioa

-Eta ezkondu ein za?

-Bai.

-Noiz ezkondu ziñan?

-"El año cincuenta y dos". Azkoittiko bateaz.

-Azkoittiar bateaz?

-Bai. Encarnación Elorza.

-Aiba, neu be Elortza naiz.

-Ba, ezkondu nintzuan. Ta jaukat bi seme. Bat hau, nausixena, ta bestie Mondrauen lana itten dauena, Mondrauen bizi dok ha. Ha be ezkondata jak, e.

-Ta azkoittiar hau, zure andria izen zana... da? bizi da ondiok?

-Ez, hil zan, hil zan. Hil zan ointxe... nobienbrien hamabost urte.

-Ta hau zer ezautu zeбен, pelota asuntuegatik edo?

-Zela ezautu nauen? Ba... Azkoittira Andramarixetan pelotan fan gitzuán, eta Bergarako enpresarixuak erun nindduan. Porke Mondrauetik Azkoittire fatie problemie zuan, e. Problemie.

-Ez euen han trena zerien, e...?

-Trena?

-... Urolatik?

-Urolatik? Bai, baiña Zumarragara? Mondrauetik Zumarragara fan biher hitzen e.

-Karo, karo.

-Urolako, Zumaiaakua hartzeko. Ta, enpresarixuak deittu justan ta “Etorri hai hona ta neuk erungo haut” ta “Bale”. Ta berakin.

-Kotxien?

-Bai, bere kotxien. Ta pelota partidua jokatu, ta han ez dakit zer ein biher auela ta aiuntamientuekin egon biher auela ta ez dakit zer, ta esan justan: “Hamen afalduko juau, e”. Ta hantxe afaitten. Horreik jaukien tabernie ta restaurana ta... Orduen zera izeten zuan, oin "ostala" baiña orduen "fonda".

-Fondia, bai.

-Ta haren etxien ta tal, ta. Ta hurrengoko egunien baton batek partidua jaukan ta suspendiru in jutsan. Ta esan justan: “E! Bixer hemen jokatu biher dok /bihok/ ostera. “Baiñe ez dauket baiñe nik erropaik be ta” ta “Erropakin arreglauko dustie hemen”. Ta eurak garbittu justien erropak eta tal, ta lo be bertan in naixuan, ta hantxe ezautu naixuan.

-Ha etxe haretakua zan?

-Bai, alabia. Ta hantxe ezautu naixuan. Ta tal ta. Ta gero, ba, berbetan bere aittekin ta, bera ta, ba, taberna kanpuen jarritte. Han egon nintzuan eurakin. Ta gero, zer zuan? A! Gero... Nun ikusi naixuan gero? A, Lekeition! Lekeitiora fan gitzuan pelotan ta bera be hantxe jauan. Abarie jaukan anaie. Ta Lekeition jauan abare. Ta haren etxien jauan. Ta han ibili gitzuan ta tal ta, hantxe hasi ta, ba, akabo. Gero ezkondu.

-Azkoitiarra.

-Bai.

20. Pilotaria eta iturgina

- **Erref:** ARR-084/023
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:52:42. **Bukatu:** 00:55:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Pilota partida jokatu eta hurrengo astelehenean obrara joaten zen, iturgintza lanetara. Orduko iturgintza gogorragoa zen gaurkoa baino.

Transkripzioa

-Ta, orduan, ogibidez betik izan za hojalaterua?

-Gero?

-Almazena edo...

-Bueno, gero almazena, saneamentos, euki naixuan nik, ta Pakok itten juan hojalatero ta nik zera. Baiña beti euki juau hojalaterixia, e. Guk beti. Ta ni gero be, pelota partidue jokatu ta, hi, astelehenien obrara, e! Holaxe.

-Orduko hojalatagintziak ta oinguak badaukie bape antzik?

-Bueno, tira, tira, tira, tira, tira. Orduen holakotxe tubotxuei be roskak emun biher jakuen alde bixetatik. Holakotxe tubuei be bai. Baiña hori hola, e, terrajiaz, e! Eta baiñerak-eta eruen biher zittuan eskilleretatik holako badakik, holako obratan zelan ipintten dien eskillerak? Handik gora, kriston pixuekin. Bi edo hiru lagunek eruen biher. Eta horreik danok, e. Gaurko moduen? Gruak eruen, bestie... bueno, bueno, bueno... bueno, alde, e!

Gero, tubue pareta barr... zera tapetako, mallukiaz ta zintzelakin, harei kanala ein [bihoken], e. Ladrillo danai kanala, e. Ta han... han sartzeko... Oin, barrez, "truu, truu". Konparaziñorik be ez! Oin, barrez, oin, barrez, tubo guztiak dittuk e, latoizkuak. Kobrie jabik oin. Kobrie hartu, sartu holaxe, soldadurie be lotu ta "trrok!" bera sartzen dok, likido bat ein, "pin-pan-pon". Ebateko holako katxarro txiki bateaz nehikue dok /nehikuok/. Ai, ai ai, ai, ai. Lehen "llave inglesa", "llave esparrago", alikatiak... Tripodie, tripodie eutsi ein biher... Jo, joder... Konparaziñorik be ez ezetarako. Alde guztietan, gauza guztietan, e!

21. Gerraosteko industria-garapen zaila

- **Erref:** ARR-084/024
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:55:13. **Bukatu:** 00:57:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

Arrasaten gerraosteko industria-garapena zaila izan zela dio Joxek, ezerezetik sortu zirela tailer asko.

22. Lanera, hodiak hartuta, bizikletaz

- **Erref:** ARR-084/025
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:57:09. **Bukatu:** 00:59:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Arrasaten sei auto besterik ez zeudenean, Joxek hodiak eta tresneria bizikletaz eramaten zituen obrara. Citroen "dos caballos" izan zen Joxeren lehenengo lanerako autoa, "cuatro-cuatro" baino lehenago irtendakoa. Pilota partidetara joateko Volkswagen bat zuen.

23. Pilotari modernoa

- **Erref:** ARR-084/026
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:59:25. **Bukatu:** 01:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Joxek izan zuen moduko Volkswagena, Oñatin bat eta Bergaran beste bat besterik ez zeuden garai hartan. Urik gabeko kotxeak ziren.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com